



**JUSTIZIA JAUREGIA  
D MAILA****KALKUTAKO TERESA PLAZA 1**

**Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan**

**Deskribapena**

Eraikin isolatua, erdisotoa, hiru oin eta duela gutxi eraikitako jasodura dituen. Bere fatxadako elementuen eraikuntza kalitateagatik nabarmentzen da. Behe oina eta baoen azpadurak, orokorrean, harlanduz eraikiak, eta dekoratu gabeko azalera harlangaitz horma zarpiatuz. Estilo neoplatereskoko konposizioa du bao mota diferenteekin: arku beheatuak, leihoburuak mainelen artean eta puntu erdiko arkuak zutabeen gainean. Garai batean ospitale militarra egon zen eraikin hau duela gutxi eraberritu, hustu eta handitu dute Justizia Jauregi berriko bulegoak bertan jartzeko. Angel de la Hoz arkitektoaren esku hartzeak Iparraldeko eta Ekialdeko fatxadak errespetatu ditu. Hegoaldeko eta Mendebaldeko fatxadetan, berriz, arkitektura linea modernoan alde egin du argi eta garbi.

**Babes erregimena**

## 1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

## 2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: handitutako zatia.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez.